

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako merkatarien kolektiboek 477.000 euro jasoko dituzte dinamizazio- eta sustapen-ekintzetarako

*Zati handiena merkataritza-animazioa, publizitatezko zozketak, marketina eta publizitatea egiteko kanpainetara bideratuko da.*

Lunes, 09 de diciembre de 2013

Nafarroako Gobernuo Turismo eta Merkataritza Zuzendaritza Nagusiak 477.216,45 euroko diru-laguntza eman du. Horri esker, 27 merkatarri-elkartetako eta Nafarroako Merkatarien Federazioko Merkataritzako jarduketarako 28 programa finantzatu dira. Programa horiek merkataritza-animazio eta dinamizaziorako kanpainak, publizitatezko zozketak, marketina, publizitatea eta abarretan oinarritutako sustapen-jarduerak osatzen dituzte.



La Morea zentro komertziala.

Merkataritzako integrazio estrategikorako laguntzak ere eman dira. Horiez baliatuta, bideragarritasun-azterketak, aktibo finkoen inbertsioak eta enpresen arteko egitura sustatzea bezalako jarduerak gauzatuko dira. Azken laguntza horiei esker salgaien eta zerbitzuen 2 zentralek eta "mugako merkataritza" bateratzeko 2 proiektuk izan dituzte onurak.

Guztira, duela gutxi ebatzi den 2013an merkataritza-kolektiboak kudeatu eta sustatzeko laguntzen deialdira aurkeztu ziren 36 elkarteetatik 32 izan dira onuradunak. Diru-laguntzen helburua enpresek elkarte eta kooperatibak sortzea sustatzea da, merkataritza sustatzeko estrategiak garatu eta merkataritza-enpresen errentagarritasuna hobetzeko, erosketa-zentralak sortu eta enpresak bateratzeko bestelako formulak baliatuta.

2013ko deialdian, 2012ko azaroaren 1etik 2013ko azaroaren 31ra arte egindako ekintzek jaso ahal izan dute diru-laguntza.

### Emakiden banaketa

Proposaturiko emakidak honela banatuko dira:

456.242,04 euroko laguntzak emango dira (2012. urtean 489.157,10 euro eman ziren) Merkataritzako jarduketarako programak gauzatzeko. Zenbatekoa honako partida hauetan banatuko da: merkataritzako aholkularitza teknikorako 16.416,72 euro, merkataritza sustatzeko

400.273,26 euro eta hedatzeko, sentsibilizatzeko eta sustatzeko ekintzetarako 39.552,05 euro.

Bestalde, 20.974,41 euroko laguntzak ere emango dira (2012an 16.284,24 eurokoak izan ziren) Merkataritzako integrazio estrategikorako, partida hauen arabera banatuta: bideragarritasun-azterketak (2.250 euro), aktibo finkoen inbertsioa (2.285,75 euro) eta sustapena (16.438, 66 euro).